

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## Astlehenean hasiko da hondartza-sasoi berria, kerik eta bozgorailurik gabe

*Zerbitzu guztiak ekainaren 1ean jarriko dira martxan, olanak, karpak, itzalkinak eta aulkiak izan ezik, horiek ekainaren 15etik aurrera egongo baitira martxan.*

Donostiako Udalak hondartza-denboraldi berri bat jarriko du abian datorren ekainaren 1ean. Irailaren 30a arte iraungo du, eta berrikuntza garrantzitsuak izango ditu, hiriko hondartzetan bizikidetzeta, jasangarritasuna eta gozamenaren kalitatea hobetzeko.

2026ko denboraldian, hondartzei buruzko ordenantza berria indarrean jarriko da eta, horrekin batera, ITSASOS kanpaina indartuko da. "Uda honetan, arnastu eta entzun itsasoa" leloa erabiliko du. Ekimena Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko arloek bultzatu dute, hondartzak garbiagoak eta osasungarriagoak izan daitezen, eta, haietan, ingurunea eta erabiltzaileen atsedena errespetatu daitezen.

Iñigo García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko zinegotziak adierazi duenez, "Donostiak uda honetan pausu garrantzitsua emango du hondartza-eredua jasangarriagoa, osasungarriagoa eta pertsona guztientzat atsegina lortzeko bidean. Protagonismoa itsasoak, paisaiak eta elkarrekiko errespetuak izatea nahi dugu"

### **Kerik eta zaratarik gabeko hondartzak**

Ordenantza berriak debekatzen du hondartzetan erretzea eta entzungailurik gabeko soinu-aparatuak erabiltzea, erantzuna emanez, horrela, bai zigarrokinen kutsadurarekiko sentsibilitate sozial gero eta handiagoari, bai hondartzetako zaratari buruzko kexa ugari. Ordenantzaren aldaketa bat da. Arau berria jendaurrean atera zenean eta alegazioak aurkezteko epean, herritarren babes handia lortu zuen.

Udalak gogorarazi du zigarrokinak direla, gaur egun, hareatzetan gehien aurkitzen den hondakin-mota. AZTIrekin batera egindako analisi batek, Kontxako badian plastikoak zenbateraino metatzen diren eta nola banatzen diren aztertu zuenak, agerian utzi zuen zigarrokinak makro-zaborraren % 38 direla Kontxan eta % 50 Ondarretan.

Ildo horretan, erretzeko debekuaren helburua da harearen eta itsasoaren kutsadura murriztea, bai eta esparru osasungarriagoak eta kerik gabekoak ugartzea ere. Era berean, soinu-aparatuaren erabilera arautzeak gozamen kolektibo lasaia eta errespetutsua bermatu nahi du.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



"Helburua gure hondartzen betiko izaera berreskuratzea da: itsasoa entzutea, inguruneaz gozatzea eta errespetuz bizitzea. Hondartza garbiagoak, osasungarriagoak eta atsegina nahi ditugu, pertsona guztientzat", esan du Iñigo García.

Udalak gogorarazten du arau horiek ez betetzeagatik 100 eta 750 euro arteko isunak jarri ahal izango direla, indarrean dagoen araudiaren arabera.

### **ITSASOS kanpaina: «Arnastu eta entzun itsasoa»**

Denboraldi berriak ITSASOS ingurumen-kanpaina ere indartuko du. Aurten, irudi berria du, eta "Uda honetan, arnastu eta entzun itsasoa" leloa erabiliko du. Kanpainaren barruan, kartel berriak jarriko dira hareatzetan, bai eta beste elementu batzuk ere: ingurumenarekiko sentsibilizazioa areagotzeko ikus-entzunezko materiala eta dibulgazio-elementuak, hondakin-mota desberdinetarako paperontziak, e.a. Hondartzetako tabernek ez dute izango erabilera bakarreko plastikorik, eta hustubideetan plakak jarriko dira, "Hemen hasten da itsasoa" gogoraraziz.

### **Hiriko garbiketa eta mantentzea indartzea**

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako arloak lan baliabide eta dispositibo guztiak indartu ditu, bai donostiarrentzat bai uda guztietan gure hondartzetara etortzen diren milaka bisitariarentzat funtsezkoa den esparru baten egoera hobea izango dela bermatzeko. Hala, garbiketako eta mantentze-lanetako udal dispositiboak egunero funtzionatuko du hiru hondartzetan eta Santa Klara uhartean.

Hondarraren baheketa gauez egingo da, eta, gehienez ere, 10:00ak arte, erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko. Ordu horretatik aurrera, eskuzko garbiketa-lanak egingo dira, paperontziak hustuko, sarbideak eta Kontxako hegala eskobatuko, eta abar. Gainera, badian diren hondakin flotagarriak jasoko dira, bai goizez, bai arratsaldez.

Horretarako, 20-23 langile izango dira egunero, hareatzak garbitzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko.

### **Salbamendua, sorospena eta bainu lagundua**

Salbamendu eta sorospen zerbitzua ekainaren 1etik aurrera emango da Kontxan, Ondarretan eta Zurriolan, eta ekainaren 15etik aurrera Santa Klara uhartean. Aurten, lehenengo aldiz, uharteko zerbitzuak irailaren 30a arte iraungo du, gainerako hondartzetan bezala. Koordinatzaile nagusi bat izango da, 18 sorosle (5 Kontxan, 5 Ondarretan eta Santa Klara uhartean eta 8 Zurriolan) eta 3 patroiz. Ordutegia 10:30etik 19:30era izango da behe-

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



denboraldian: ekainaren 1etik 14ra eta irailaren 16tik 30era; eta 10:00etatik 20:00etara, goi-denboraldian: ekainaren 15etik irailaren 15era.

Bestalde, Kontxako bainu lagundua goi-denboraldian erabili ahal izango da, 11:00etatik 19:30era. Zerbitzuak hiru monitore espezializatu eta material egokituak izango ditu, hala nola lur orotako aulkiak eta makulu anfiboak, irisgarritasun unibertsala bermatzeko. Bainu lagunduaren tiketak kabina kolektiboetara sartzeko ere balio izango du.

Salbamendu eta sorospen zerbitzuak, gainera, quad berri bat izango du, hondartzetako erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko.

### **Aldagelak, itzalkinak eta zerbitzuak**

Aldagelak 09:00etatik 20:00etara egongo dira irekita ekainean eta irailean, eta 20:30era arte, uztailean eta abuztuan.

Itzalkin-zerbitzuari dagokionez, Donostiako hondartzetan eskaintzen diren gunek ia guztiak esleituta daude jada.

Kontxako 290 toldoak, desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako 8ak barne, osorik esleitu dira jada. Ondarretan ere, ia eskaintza osoa osatu da (424 toldoak esleituta daude, desgaitasuna duten pertsonentzat egokitutako 12ak barne, bai eta 157 eguzkitakoak ere). Karpen kasuan, eskainitako 82 karpetatik 81 esleitu dira jada, hau da, % 99 inguru. Bestalde, Zurriolan, dauden 240 toldoetatik (horietatik 8 egokituak), 161 esleitu dira; beraz, erabiltzaileek oraindik dute batzuk eskuratzeko aukera.

Gainera, Kontxako aulkien eta Zurriolako hamaken eguneroko alokairu-zerbitzuari eutsiko zaio.

Zerbitzu osagarrien artean, Zurriola hondartzak hondartza-boleiko kantxak izango ditu aurten ere; Kontxak, 1 eta 2 tabernak hegalkinetan, eta Ondarretak, kioskoak eta piraguak alokatzeko zerbitzua. Santa Klara uharteak ostalaritza-zerbitzua eta komun publikoak izango ditu, ekainaren 15etik irailaren 30era. Gainera, bainu segurua zaintzeko eremu balizatuak ezarriko dira Kontxa eta Ondarretako hondartzetan eta Santa Klara uhartean. Eta sei gabarroi izango dira, Ondarretan eta Kontxan banatuak.

### **Hondartzak beren ingurumen-hobekuntza finkatzen ari dira**

2025eko ingurumen-adierazleek erakusten dute Donostiako hondartzak bilakaera positiboa izan dutela 2001az geroztik ezarritako Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren barruan.

Datu nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

# Prensa oharra

## Nota de prensa



- Birziklatze-tasa % 59raino handitu da.
- Bildutako hondakinak % 46 murriztu dira, 2018-2024 aldian izandako batez bestekoarekin alderatuta.
- Guztizko ur-kontsumoa % 6,5 jaitsi da.
- Kontsumo elektrikoa % 11 murriztu da.
- Gas-kontsumoa % 33 jaitsi da.

Udalaren ustez, datu horiek agerian uzten dute hartutako neurrien eragin positiboa, bai eta udal zerbitzuek eta herritarrek partekatzen duten konpromisoa ere: gero eta jasangarriagoa den eta ingurunea gero eta gehiago errespetatzen duen hondartza-eredu baterantz aurrera egitea.

"Hondartzak Donostiako ondare natural eta sozial handienetako bat dira. Zaintzea erantzukizun partekatua da, eta ziur gaude etapa berri honek bide emango duela haietaz are gehiago gozatzeko, errespetuan, osasunean eta jasangarritasunean oinarrituta", amaitu du Garciak.